

XII. Argazki Lehiaketak baditu irabazleak

2013/05/24

Argazki mordoa jaso ditu Kirol Zerbitzuak aurtengo ikasturtean. "Bizitza aktiboa" izan da aurtengo argazkien gaia eta primeran isladatu dute parte hartzaileek Kirol Zerbitzuak hautatutako gaia.

Bilduma onenaren saria Danel Martinez Esnalek irabazi du **Basoa (9.1)**, **Gailurra (9.2)** eta **Itsasoarekin bat bildumarekin (9.3)** eta argazki onenaren saria Iñaki Urrutia Garitaonandiarentzat izan da Mendiarekin harremanetan bilduman **Lagunartean Gozatzen (23.2)**

Bilduma hau aukeratzearen arrazoi nagusiak hauek dira:

1-Bilduma osatzen duten argazkien lotura bikoitza da. Alde batetik, Bizimodu Aktiboa kirolaren bitartez bermatuta dago eta, bestetik, hiru elementu natural darabiltza (lurra, haizea eta ura) lotura hori indartzeko.

2-Teknikoki argazkiek maila altua dute; konposaketa egokia dute, enkadre txukuna, kolore biziak eta, gainera, ekintza-une bikaina harrapatzen dute.

ARGAZKI ONENA:

Argazki hau aukeratzearen arrazoi nagusiak hauek dira:

1-Nahiz eta argazki honen protagonista nagusiki mendiko paisaia izan, baloratu da bideak duen indar sinbolikoa eta taldeak hartzen duen garrantziamendia igotzearen ekintzan.

2-Teknikoki maila altukoa, konposaketa diagonalak eta paisaiaren koloreak izugarritzko indarra ematen diote irudiari.

Argazkiak ikusgai hemen

Mila esker partaide guztioi zuen lan eder hauengatik eta hurrengo ediziorarte!



Lagunartean gozatzen. Argazki irabazlea